

# Alteration to a Suburban House (Dan Graham, 1987)

Etxeko bizimodu berri bat aldiri amerikarrear

**Laburpena:** Dan Graham (Urbana, AEB, 1942) artistaren ustez, arte eta arkitekturaz mintzatzerakoan, ezinbestean aipatu behar dira testuinguru soziala, politikoa eta ekonomikoa. Ikerketa hau 1978an bukatu zuen *Alteration to Suburban House* eskulturarekin, non etxekotasun berriak proposatzen dituen, kode arkitektoniko-sozialen eguneratzearen bitartez.

**Hitz-gakoak:** Aldiria, Erakustokia, Etxekotasuna, Eskultura.

**Abstract:** Dan Graham (Urbana, USA, 1942) understands Art and Architecture as a social, political and economic context. The model *Alteration to a Suburban House* (1978) is the culmination of a long reflection on the American houses in which, Graham proposes a new domesticity through the use of the social-architecture code.

**Key words:** *Suburbs, Display, Domesticity, Sculpture.*



Angela Juarranz

Doktoradutzako ikaslea eta FPUko irakasle kontratatua (Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa) Madrilako Arkitektura Goi Eskola Teknikoan

Bidaltze data: 2016-06-30

Onartze data: 2017-01-31

1978an Dan Grahamek (Urbana, AEB, 1942) *Alteration to a Suburban House* eskultura gauzatu zuen. Amerikar aldirietako etxebizitza tipikoari buruzko ikerketa luze baten burutze fisikoa izan zen. Aldez aurreko artelanetan kanpoalde eta barrualde domestikoen arteko asimetria zen lantzen zuen gai nagusia. Espazio batek besteari proiektatzen dion irudiak «ikuspegi» bezala definitzen du hau. Hau da, alde bakoitzean egoera ezberdin bat izango dugu, saltzaile eta eroslea edo nagusia eta langilea maila ezberdinetan dauden bezala. Hala ere, *Alteration*-ek etxebizitzako bizilaguna eta kaleko oinezkoa parekatzea lortzen du kode sozial-arkitektoniko baten bitartez.

*Alteration*-en aurretik garatutako obren artean *Two Viewing Rooms* (1975) nabarmentzen da. Bertan maiz erabiliko duen material bat txertatzen du: beira-ispilua, alde batetik islatzailea eta bestetik gardena dena. Aurrerakuntza material hori garaiko estatubatuar ingurumen-politikek sustaturik heldu zen, zehazki, Jimmy Carterrek hasitako mugimendu ekologikoekin eta mugimendu horrek petrolio-kontsumoa jaisteko zuen grinarekin: «Korporazioek aire girotuak eragindako gastuak jaitsi nahi zituzten; aurpegi bikoitzeko ispiluen bidez, alderdietako batek eguzkia islatu egiten du, eta ondorioz ez dago barnealdea girotzeko beharrik. Horrez gain, bigilantziaren printzipioa ere bilakatu zen, barnetik kanpoaldea ikusteko aukera ematen baitzuen, kanpotik barnealdea antzeman ezin zen bitartean. Gainera, kanpoko azalak, ispiluak, ingurugiro enpresak identifikatzen zituen zerua islatzen zuenean» (Graham, 2012). Graham-en beste ikerketako batek arkitektura eta bideoaren arteko erlazioa lantzen du, eta nola eremu publiko eta pribatuak kontaktuan jartzen dituzten. *Video Projection Outside Home*

(1978) artelanean Graham-ek telebista-pantaila erraldoi bat jarri zuen etxebizitza baten lorategian. Pantailak barnean bizi den familiak telebistan ikusten duen oro ematen du zuzenean. Modu publiko batean erakusten da mundu pribatua, zehazki, telebistak egiten duenaren aurkakoa, zeinak esfera pribatuetara gertakizun publikoak eramaten dituen (I. irudia). Aldi berean *Alteration to a Suburban House* artelana eraiki zuen: «Aldiriko etxebizitza tipikoaren fatxada osoa kendu egin da, eta beira gardenezko xafla bat jarri da horren ordez. Beirazko fatxadari paraleloa den ispilu batek etxebizitza bi zonatan zatitzen du. Aurrealdea ikusgaia den bitartean, atzeko aldeak ezkutaturik dirau. Ispiluak, beirazko fatxadaren eta kalearen aurrean egonik, ez du etxearen barnealdea soilik islatzen, baizik eta, baita etxebizitzaren inguruak eta karrika ere. Alboko beste etxebizitzaren fatxaden islek falta den fatxada betetzen dute» (Graham, 1993: 36).

Interesgarria da aldirietako testuinguru sozial, politiko eta geografikoa ezagutzea. Gerraosteko etxebizitzak hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadetan etxebizitza amerikar nagusia izaten jarraitu zuen. Zenbait hamarkada aurrerago, Estatu Batuetako ekonomiaren eta estatusaren igotzeak biztanleriaren atal handi bati etxebizitza berri bat erostea ahalbidetu zion. Hirriaren saturazioak gazte asko aldirien konkistara joatea eragin zuen. Eskuratzeko materialaren ahalmenak goi-klaseen eta erdi-klaseen arteko ezberdintasunak jaitsi zituen. Produktu berri asko izatea aurrerapen politiko perfektu baten erakusle bezala ulertu zen. Belaunaldi hura etxebizitza modelo berri baten kontsumitzailea izan zen, baita bizimodu berri batena ere. Txalet-en argazkietan ezin genezake ia ezberdintasunik antzeman bizitokiaren artean. Biztanleen gustu eta ohiturak



1. irudia ~ Video Projection Outside Home (1978). Eskultura 23x51x76cm. Egilea ~ © Dan Graham.







2. irudia ~ Philip Johnson. Glass House (1949). New Canada. Iturria ~ Egilea.

amankomunak ziren eta makinaria publizitario gogor batek zuzentzen zituen. Hare gehiago, familia bakoitzaren jabetza oro behin-behinekoak ziren. Etxebizitza, autoa eta altzariak denbora laburrean saltzen ziren, hobeagoak ziren beste batzuk lortzeko xedearekin. Horri modek sortzen zituzten nolabaiteko fantasia eta dibertsioa gehitu behar zaizkio. Transformazio horiek informaltasuna eta zinemako pelikuletako glamourra konbinatzen zituen bizimodu batean oinarritzen ziren (Hine, 1986: 3).

Aldiri horiek belaunaldi berri baten garapenerako eremu paregabeak ziren; guner berde zabalak eta segurtasuna eskaintzen zuten auzo lasaiak. Etorkizun oparo bat espero zuten garai hartako biztanleek; hirurogeiko hamarkadako *baby boom*-a horren isla bikaina da. Hala ere, auzo horiek zuten dentsitate baxuak eta zuzkidura publikoen faltak eraginda, emakumeek etengabe beren seme-alabak zaintzeaz arduratu behar zuten —haien bizitza soziala, haien heziketa...». Gerra osteko senar-emazteen irudi berria aldizkarietan, telebista-programa eta iragarkietan proiektatzen zen. Intelektual askok haien konformismo eta arduragabetasun hori gogor kritikatu zuten. Horri Lewis Mumford soziologo estatubatuarrek «erdipurdikeria ugalkorra» deitzen zion. Bizimodu berri horren beste ondorioetako bat auzokideen arteko laguntasun falta da. Biztanle horiei etxebizitza bat edo bestea aukeratzeak berdin diela antzeman zuten soziologoek. Haien kezka nagusia prezio on bat lortzea zen eta ez zituzten balio sozialak aintzakotzat hartzen. Horrez gain, telebistak, etxebizitza guztietara heldu ondoren, biztanle guztien denbora oro xurgatu eta kanpoaldearekin zuten kontaktu beharra asetu zien.

Ondoren *Alteration to a Suburban House* eta haren analogo errearen arteko antzekotasun eta ezberdintasunak analizatuko ditugu. Aldirietako etxebizitza baxua eta asimetrikoa da. Hori autoaren ondorio argi bat da, bai ibilbide eta sarbidean baita «L» formako konfigurazioan eta estalkiaren mailaketan ere. Autoak sarbidean dirau, aberastasun-sentsazioa handitzeko. Fatxada koloretsua da, material ezberdin askokoa eta banda horizontal eta bertikal gainjarriekin konposatua. Joko konpositibo hori etxebizitzaren atzealdean desagertu egiten da, non gainazal lau eta ordenatu bat dagoen. Aldirietako bizitokiaren fatxadako irekierak aurreko lorategiaz modu birtual batean goxatzea ahalbidetzen du. Ederki zainduta dago, aurkezpen-gutun egoki bat eskaintzeko. Gainera, leihoa ez da soilik kanpoaldearekin konexio bat, baizik eta baita barrualdea erakusten duen leiho bat ere. Horrek guner komunaren intimitate-maila mugatzen du, auzokoen arreta erakartzeko xedearekin. Altzariak, argiak eta apaingarri guztiak kanpoaldetik eszena familiar perfektu baten irudia igortzeko kokatzen dira.

Graham-en etxe-eskulturaren perimetroa ikertu ondoren, sinplifikazio-maila altu bat antzeman genezake. Ez dago aldirietako familia guztiek duten ibilgailuaren arrastorik. Garajea eta ibilgailuentzako sarbidea desagertu egin dira. Gainerako fatxadak, oraingoan bai, etxebizitza originalean bezala, erabat lauak dira eta kolore bakar batekoak. Graham-en etxearen alterazio nagusia erakustoki-ispiluan gertatzen da. Alderik aldera doan irekierak leihoan zehar ikusten den kanpoko ikuspegia zabaltzen du. Ispiluak, leihate handirantz eta kalerantz begiratzean, etxearen barnealdea, lorategia eta errepidea erakusten ditu. Konexio bisual horrez gain, eskultura horren berezitasun nagusia



3. irudia ~ Dan Graham. *Alteration to a Suburban House* (1987). Eskultura 28x109x122cm. Zehaztasuna. Egilea ~ © Dan Graham.

etxebizitzaren kanpoaldea barnealdean islatzeko gaitasuna da. Graham beraren *Picture window* (1974) obraren deriba da. Oraingo honetan, barnealdeak oinezkoak eta erabiltzaileak berdintzeko gaitasuna du.

Eskaparate edo erakustokia etxebizitza suburbanoaren bereizgarri berriena da. Solairu bakarreko etxebizitza eta leihate apaisatuaren konbinaketa modu zabalean izan zen frogatua mende Erdiko eremu kaliforniarretan. Frank Lloyd Wrighten etxeak edo *Arts & Architecture* aldizkariaren *Case Study House*-ak horren adibide dira. Horiek duten konposaketak barrualde-kanpoalde konexio zuzenak ahalbidetzen ditu. Baina Manfredo Tafurik edo Francesco Dal Co Mies-ek 1930eko etxebizitzei buruz esan zuten bezala: «Naturak altzarietara bat egin zuen (...)» (Tafari, 1979: 157) (2. irudia). Graham-en eskulturaren *Glass House*-etako naturaren erreflexua kaleko ikusleek ordezkatzen dute. Oinezkoak agertokian modu jarraitu batean egoteko aukera irabazi du orain. Graham-en eskulturaren beste erreferentzia batzuk Robert Venturi, Frank Gehry edo Michael Graves-en obrak dira. Gehry-k bere etxe arrosan (1979) etxebizitza tradizional bati fatxada zati batzuk kentzen dizkio eta eraikia izan den horren irakurketa bat ahalbidetzen duen geruza material batekin birkonfiguratu du. Arkitektura horiek eta kode publikoek, ordea, ez diote elkarri eragiten *Alteration to a Suburban House*-ek egiten duen moduan. Hau da, ez dute ez ingurunea eraldatzen ezta oinezkoak aztoratzen ere ez.

Eraldaketa etxearen espazialitatea gainditzen du auzoarekin dituen konexio fisikoetan eta familia-komunitatearen estrategia sozialean eragiteko. Bizilagunak, altzariak, oinezkoak eta auzokoen fatxadak, denak ispiluan batzen dira. Tradizio domestikoa apurtzen du; biztanleak, oinezkoak

eta gidariak maila berera eramanez. Jada ez da etxebizitza barnean esfera publiko bat telebistaren bitartez txertatzen. Horren ordez, oinezkoari esfera pribatura daraman sarbide bat ahalbidetzen zaio. Aldiriko etxebizitza aurrerapen tekniko, sozial eta politiko bat bilakatu zen bere baitan, domestizitatearen erakusleho bilakatu zenean (Colomina, 2006:195). Baina, horrez gain, Graham-en obrak elkarri banatutako domestizitate bat eratzten du. *Domestizitate berri bat, domestizitate publiko bat* (3. irudia).

///

### Bibliografia

- COLOMINA, B. (2006): *Doble exposición. Arquitectura a través del arte*, Akal, Madrid,
- GRAHAM, D. (1979): *Dan Graham: Video - Architecture - Television: Writings on Video and Video Works 1970-1978*, University Press, Nueva York.
- GRAHAM, D. (1993): *Dan Graham: public - private*. Goldie Paley Gallery, Levy Gallery for the Arts in Philadelphia, Moore College of Art and Design, Philadelphia.
- GRAHAM, D. (2012): *Elkarrizketa erakusketa baten inaugurazioan*, Lisson Gallery, Londres, 2012ko martxoaren 19a.
- HINE, T., (1986): *Populuxe*. Bloomsbury, London.
- TAFURI, M., et al., (1979): *Modern Architecture*, Harry N. Abrams, Nueva York.

Gaizka Altunak itzulia.